

GOROZIKAR BATZUK TRENEAN LEHENENGOZ

Gorozikako Ignacio Larruzeak kontatutako ipuin zaharra

Bilbotik Tuterarako burdinbidea eginda, norbaitek ibilkera berri haren jazoera batzuk Gorozikan zabaldu zituen. Orduantxe euskaldunen belarrietan tren berba honek lehenengoz hots egin zuen. Senar-emazte batzuk, trena zer zen jakin gurarik, tiki-taka Zornotzara lehenengo eta ondoren Bilbora jo zuten.

Aldi hartan Bilbo gaurko lauren bat ere ez zen eta laster heldu ziren Gorozikar senar-emazteok tren bakartxo haren geltokira. Beste batzuk sartzen ikusita eurak ere, nora zihoazen ez zekitela, lehenengo organ (primerako bagoian) sartu ziren. Ogipeko (enpleadu) bat laster eurenganatuta, beraren ondotik hirugarreneko batera eraman zuten.

Txistuka eta ketan suburdia zutela orgadia (trena) ibiltzen hasi zen eta geroxeago Peruk Mariari,

- Nik zerbait egiteko gogoia daukat –esan zion.
- Bada joan zaitez zokondo batera eta egin hantxe egiteko hori.

Peruk egun hartan lehenengo aldiz jantzi zituen barruko galtzak. Zituenik ere ez zen gogoratzen, eurretan geratu zitzaion bere egitekoa. Bere lekuan jezarri zenean, emazteari

- Mari –esan zion-, oraintxe ere ni primeran nihoa: bigun-bigunetan jezarrita.

Ez dakigu zein herritan zen, Orduñan ala Tuteran, ala Logroñon, ala beste zeinetan: ostatura joan ziren eurak eta mairatu zirenean Marik kirats handia, usain txarra hartu zuen. Geroago eta handiago zen kiratsa, sur-ziloak estalduaren barruraino sartzen zitzairen. Peruk orduantxe ezagutu zuen trenean zetozeela jazo zena.

- Jaurti barruko galtza atsituok –esan zion emazteak Peruri, gelaratu zirenean.

Balkoia zabaldu eta, blaust!, jaurti zituen. Bai hareri damutu! Serenu bat buru-buruan jo zuen eta ordu erdiren buruan kartzelan ikusi zuen Peruk bere burua.

Resurrección Maria de Azkue

Euskalerrriaren Yakintza. Literatua Popular del País Vasco

II. Ipuin eta Irakurgaiak

Euskaltzaindia & Espasa Calpe

Madrid, 1989